

Satorrak

Joan den asteburuan, elkarretaratze batean egon nintzen, biribilgune batean. Deus berezi, euskaldunok egin ohi dugun protesta arrunt bat, ezarriak zaizkigun neurri bereziak onartezinak direla adierazteko. Nekea eta haserre komunitatean partekatze elkarretaratze bat. Euskaldunak, abereak bezala, ezin gara egon edo bizi nahi edo behar dugun lekuan. Gure nazionalitate arrotza azpimarratzeko asmoz seguruenik, burdinazko tresneriarekin markatuak gara. Azala eta arima erre, geure buruz ez gaitzen jabetu sekula santan. Han, txikitako lagun bat ikusi nuen; beraz, eta besarkatu ondoan, nire azken artikulua irakurri zuela hitz hauekin adierazi zidan: «Zer, zuek beti marmar, negarrez edo? Ez al da ongi ibiltzen *Zaldi Urdina*?». Eta irriz hasi zen, ziria sartuz. «Ezetz, ba, ongi dela egurra ematea», erantsi zidan, lasaitu nahian. Baina arrazoi du; artistak, laborariak edo merkataria bezala, ez gara sekula poztan: euria eskas edo gehiegi, eguzkia berdin...

Orduan, oraingoan poztea erabaki dut. Milaka pertsona hurbildu zaizkigu *Zaldi Urdina* ikustera, eta eskuetatik eskapatzen zaigu. Gu baino handiagoa den fenomeno txiki bat bihurtzen ari da. Jendea trumilka, tribuan, familian edo lagun taldean etortzen da gure ikustera. Eta antzezlan baliatzen du berea den historia bat aipatzeko. Taldean hitz egiteko, eta intimitatean bizi izan diren zauriak partekatzeko. Beren minez, bizipenez,

beldurrez, galdutako senideez, mintzatzen da jendea. Antzezlanak komunitatea egiten du. Familien motxila, estigma, lotsa, erru sentimentua, eta euskal gizarreak jasan duen azken sarraskia, arrats bateko hitzorduan, doi bat arintzen da. Antzezlan hau ez da gehiago gurea. Komunitateak bere egin du.

Euskal Herrian milaka gazte erail dira, nahitara, molde antolatuan, heroina dela medio. Hies-eta tarteko. Belaunaldi pare bat desagertu dira herri batzuetan. Eta gazte horiek guziak, herriak, familiak, bakar-bakarrik sentitu dira min horrekin... Haien zama, mina eta hutsunea adierazteko, ez da lekurik, ez bada molde pribatuan. Sarraski hau ez da sartzen euskal gatazka-ren kontakizunean. Gatazkarik ez omen da, izan ere, pentsa... Orduan, bai, zorientzekoa da gure komunitatearen gaitasuna elkartzeko eta mintzatzeko auzardia ukaitea oraindik. Minak ez du isildu euskal komunitatea:



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

antzezlan ostean, ikusi ditugu gurasoak haurrarekin aipatzen osaba edo izebaren eskasa, lehengusua, alaba, amona.... Memoria herriko bat elikatzen ahal da antzerkiz, eta euskaraz.

Arrakasta aipatzen segitzeko, Jaurlaritzak atera berri du inkestak, non agertzen den euskaldunek antzerkia «kontsumitzen» dutela gero eta gehiago. Hainbatek (%40k), euskal antzezlan bat ikusten dute urtean. Zenbaki ederra da, baina ez du kontatzen ezkututzen dena: zenbat antzezlan ikus ditzaket euskaraz urtean, eta zenbat erdaraz?



Artedrama, Axut eta Dejabu konpainiak arrakasta handiz ari dira taularitzen *Zaldi Urdina* antzezlan. ZALDIURDINA

Iparraldean 300 bat frantses ikuskizun «kontsumitu» ditzaket urtean; eta euskaraz, zenbat? 30? 40, asko jota? Zenbat euskal antzerki talde bizi da bere ofizioaz? Zenbat ikuskizun estreinatzen da urtean hiru aktore baino gehiago dituen? Zenbat hamar aktore baino gehiagorekin (ez bada herri antzezlan bat)? Eta proportzioa handitzen da zinemaz hitz egiten hasten bagara. Hor basamortutik hurbiltzen gara. Gure historia kontatzeko ahalbide txikiak ditugu, oso txikiak komunitate bezala. Ez dakit nahitara edo nagieriaz hartaratu garen. Edo ezjakintasunez. Edo pixka bat denetarik.

Kezka horren haritik doa euskal sorkuntza prekaritatean mantentzea. Ez baita kasualitate bat. Erabaki guneetan, bigarren mailako gaitzat kontsideratzen da gure artea, pintxo potea hornitzeko ekimena, noizean behin ama edo amona ateratzeko aitzakia, edo haurrak entretenitzeko modua. Baina gure historia jabetzeko? Gure etorkizunaz arduratzeko? Gure pentsaera propioa

garatzeko tresneria izateko? Saretzeko? Ordu pare batez euskaraz askatasun osoz bizi, minutu bakar batean pentsatu gabe euskaraz ari garela. Hots, komunitate aske bat bezala bizi. Begi bista da gotorlekua zein den, aski da ikustea Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin gertatu dena Iruñean. Gure intimitatea, transmisioa eta elkargunea bihotzean

erasotzen da. Hor molde agerian eraso egin bada, besteetan molde zuhurragoan egiten da, molde ekonomikoan, ezintasuna aitzakiatzat emanez. Gezur hutsa denean, zeren Euskal Herria ez da herri pobre bat. Aski da Baionatik Bilborako bidea zeharkatzea eta ikustea nolako enpresa puskek, eta etxe-gazteluk edo zelai berdek osatzen duten gure herria. Maleruski, urteroko aurrekontuen negoziazio korapilatsuetan *kultura* edo *arte* hitzak ez dira aipatu ere egiten...

Izaeraz satorrak gara, eta eskerak. Gaez, guk soilik ezagutzen ditugun lurpeko hoditeria batzuei esker, antzokietan biltzen gara. Marra gorriak pasatzeko plazerra gure komunitatearen kirol kuttunenatariko bat da. Eta itsuak gara behartutako marra gorri. Bizirik iraun dugulako, mintzatzen segitzen dugu eta mintzatuko gara. Kirola ez al da ona osasunerako? Izan gaitzen gizarte osasuntsu bat, eta josta gaitzen marra gorri, beltz edo zuri guziekin. Bil gaitzen, poza-ren harira.

**Erabaki guneetan,
bigarren mailako
gaitzat hartzen da
gure artea,
pintxo potea
hornitzeko ekimena,
noizean behin ama
edo amona
ateratzeko aitzakia,
edo haurrak
entretenezko
modua**

2 mó/
graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin **99€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Eztingo da beste eskaintza batzuetan erabiltzeko.

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA
DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN
LASARTE-ORIA • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIOPTICAS

www.multiopticaspuzkoa.com

